

BRASIL

Etorkizuneko erria ezagutzen degun Brasil

Brasil'en gañean zer dakigun galderzen baldin badigute, egun aurtako zalapartak alde batera utzita, Rio de Janeiro'ko inauteriak, bossanova ta... ezer gaiegi etaiguz gogoratu. Bear bada kafea. Misterioz betetako nazio bat da guretzat Brasil. Zer baiten zurrumurruk entzuten ditugu baiñan ortik aurrera ez. Guk gutxi ezagutu arren Brasil Ameriketako naziorik aundienetakoa da ta etorkizuneko nazioa daukan jatorrizko aberastasunegatik, bizilagunen ugaritzeagatik. Bakar-bakarrik dirua falta zaio, kapitalak falta zaizkio bere ekonomia ezitzeko ta bere ezbehar zorrotzekin lenbaiten ixiltzeko. Esate baterako asko dira Brasil'en goseak iltzen daudenak eta bizitza laburra da beste lurralde aurreratutakoiei begiratura.

egiteko dago. Benetako reforma barten bearrean arkitzen da. Brasil'ek Frantziak daukan lur-jabearen erdiak ere ez dauka ta Brasil Frantzia baino amabost aldiz aundiagoa da ta Frantzia'k baino beste orren-

ta bere politikoa etsaiei gauz bat bururatu zitzaizen berak bestien lurrekin egiten zuana egitea. Ta orrela egun batean bere lurralde guztiak urrik gabeko nekazariak okupatuta irkitu zituan. Exixajon beste gau-

eta onela sortu zan 1959'gn. Brasilia Brasil guztiaren uri-buru nagusia.

BRASILIA

Eraberriko uri berria. Oso-osorik, ezereztik altxatutakoa. Zeoro berria, teknika ta jakinduri berriekin egindakoa. Garai berriei egindakoa. Baiñan baita ere besteren batzuek diotenez inflazioaren monumentua. Izan ere ainbeste balioko uri berri bat ososorik gobernuak bere kontura egiteko izugarriko diru pillak bear ziran eta orregatik, lenagotik ere estutasunetan baldin bazebiltzan Brasil'goak diru kontuetan zeoro gaizkatu ziran Brasilia sortzerakoan. Inflazioa. Egunetik egunera diruak gutxiago balio. Munduko agintari guztiak diote bihurra indar onei, ekonomia bat goitik behera bereala bota dezakelako.

NEKAZARITZA UGARI

Ekonomi guztia eraberri bearrean arkitzen da Brasil. Orañi esaten dan bezela estruktura berrien bearrean arkitzen da. Zer dala ta? Bere exp-ortazioetan 60% nekazari gaiak dira. Gai oietatik beriz 20% gutxienean kafea. Danok inoiz entzun izan ditugu Brasil'go kafearen istoriak. Gaiñera nekazaritza gai oiek merkatu ugariet ez daukate. Gai oietatik geienak Ipar-ameriketa'ra joaten dira, Ortik jaiotzen da Brasil'entzat lokarri estuak Ipar-ameriketarekin. Ori dala ta Goulart jauna saiatu zan merkatu berriak billatzen eta Ipar-ameriketan ezin billatu ta U.R.S.S.'en billatu nai izan zituan. Orduan ipar-ameriketarrak zeoro asarretu ziran. Zer dala ta? Oiei morroiekin militarren iriztiran, ta alegin geienak egin zituzten lendakaritza kentzeko.

Brasil'ko errepublika da politiketan esaten denez, lendakaritza, ua da, lendakria oso indartsua izaten ta ektieko indar geienak bere eskutan dauka. Etuzten ori nai Goulart'entzat militarrek ta ortaroko lendakaritza artu baiño lenago konstituzioa aldatu egin zuten lendakria ta parlamentuaren artean gobernu jarri eraziaz.

Denborarekin ori kendu zuan Goulart'ek, ta beste gauz asko ere aldatu nai izan zituan bai konstituzioan, bai nazioaren estrukturetan. Orduan asarretu ziran militarrek zeoro ta bota zuten.

IPAR-AMERIKETA'REN ITZALA

Ekonomiari dagokionez Brasil'ek ez dezake ezer egin Ipar-ameriketarekin nai ez duanik. Iparameriketarrak kanpoan dauzkaten kapitalen artean erdiak baiñan gaiegi Brasil'en arkitzen dira. Ori orrela dala ta, brasiliarrak kanpoko politikari dagokionez askatasun oso-osorekin jokatu nai izan dute ta ori izan da iparameriketarrak batera gustatu ezaiena. Gaiñera castr-zalatasunaren bildura ezurteratano sartuta daukate ta bildur aundiena ortaroko Brasil'en zeukaten Goulart lendakari zegoan bitartean. Badira orregatik Goulart iparameriketarrak nai izan dutelako erori dala esaten

MUNDUAN ESATEN DANA

NEW YORK TIMES

Brasil'en gertatutakoak erakusten duana

Demokraziarentzat pozgarria Brasil'en gertatutakoa. Ez dago gauzak zuzentzerik demagogiarekin eta ori egin nai izandu zuan Goulart'ek bere azken garaietan. Ez dirra gauzak alai-alai zuzentzen. Jhonson lendakariaren joera gaiñera zeoro berria da ego-ameriketari dagokionez. Gero ta geroago gaiegi begiratu die Ipar-ameriketarekin euren intereset ta ez ainbeste militarrek diran edo ez, demokratik diran edo ez egoamerikatako agintariak.

LA CROIX

On Pompidou Japon'en

Frantzi ta Japonen arteko artu-emanok oso onak baldin badira, azkenengo ilabetetan elkarren arteko laguntza sendotuta baldin bada, baita ere egia da bien politikak ez dirala berdinak. Komunisten Txina'ri dagokionez Frantzia'ren arrazoei japonarrak berriekin erantzun diote: beste Txina'rekin artu-eman onenekin jarraitu nai dutela; ez dutela Taipeh'en lekuan U.N.O.'n Pekin ikusi nai; bai dutela, bai, komertzioa ugaritu komunisten Txina'rekin, baiñan ez dutela galdu nai beste Txina'rekin daukatena eta gutxiago oraindik Ipar-ameriketarekin, euren erosle onena danarekin.

dutenak. Era guztietara iparameriketarrak zeoro poztu dira. Lengo lendakariak Brasil'tik aldegin baiño lenago zorionak eman zizkion gobernu berriari Ipar-ameriketaren ambaxadoreak.

LACERDA IKARAGARRIA

Badu izena gizon onek. Komunisten kontrako amorratua danak. Saltsa guztiak onek astintzen omen dituta eta ez omen da onen kontra Brasil gobernatu lezuten lendakaririk. Orañi arte gutxienean egia gertatu onetaz esaten dana.



BRASIL'KO ESTADU BATUAK

Brasil, politikan esaten denez, federazio bat da. Estadu askoek osatutako estada. Ogeita bat estaduak osatutakoa. Estadu bakoitzak bere lendakaria ta bere oiturak dauka. Ta lendakari oiek aukeratzeko estadu bakoitzaren barruan elektzioak izaten dira. Ta estadu guzti guzti oien gañean eta lendakari ta gobernu guzti oien gañean gobernu federala ta Brasil guztioko lendakaria daude. Goulart erori erazitzeko zalapartak asi ziranetan, militarren zalapartak, esan zuten bezela arrikua izan zan Brasil'en batasuna austeakoa. Ba, lenago esandako orregatik zuten bildurra. Goulart'en kontra estadu batean altxa ziran, eta prest zeduen estadu ortako lendakari ta militarrek Goulart'ek alde egiten ez baldin bazuan Brasil'tik apartatzeakoa estadu orti.

Lenago, estadu oietako batean, Guenaba izenekoan, zegoan Brasil guztioko uri-buru nagusia, Rio de Janeiro. Baiñan gauz bat gertatzen zan, zera, Rio de Janeiro zan federazioko estadu baten uri-buru, Guanabara'rena, bitiztea gustatzen zia nuntabit.

Orretaz gaiñera lurren banaketa

beste bizilagun daukalarik. Agintariak eta jabeak saiatu ez diralako injustizi au konpontzen nekazarien artean, lurrik gabeko ta gosez iltzen ari diran nekazarien artean, jai o dira elkartasun batzuek lurrik beste-rik ez bada ere indarez bereganatze-ko. Auen buru Julioz izeneko bat ibiltzen da. Batzuen bildurrez au izan diteke Brasil'ko Fidel Castro. Baiñan Julioz bera oso aberatsa da ta lur askoen jabe da. Ori dala

zik bururatu gudariei deitzea baiño bere lurrik berriro bereganatzeko. Pentasitzeko, onekin asko galdu zuan.

MILITARRAK NOIZ ALDATU DEZATEKEN KONSTITUZIOA

Komeni zaienean, Orañi Goulart jauna botatzeko arrazoi ori jarri dute, alegia Goulart jaunak Konstituzioa aldatu nai zualako. Ta konstituzio-zaleak bezela altxa ziran bere kontra. Baiñan ahaztu egin ote zaita lenago Goulart jaunak lendakaritza artu baiño lenago konstituzioa aldatu egin erazi zutela lendakari berriak bere eskutan al zan indarrak guxienera edukit zezan.

1960'gn. urtean Janio Quadros'ek irabazi zituan elektzioak, eta mundu guztiak uste zuan gizon trebe ta jator onekin ezbehar geienak zuzenduko ziralata; baiñan urtebete baiño lenago lendakaritza utzi egin zuan etzuan nuntabit lortzen nai zuana ta ber kontra indar izkutuko ta aundiak arkitu zituan. Orduan lendakari ortzekoa Goulart jauna zan ta berari tokatzen zitzaizen lendakari berria izate. Baiñan ezkerzale geiegi zan ta Brasil guztiaren uri-buru. Ta jakiña, Guanabara'ko ta Brasilio lendakariak uri berean bizi bear eta askotan partidu berdinekoak ez izan eta makiña bat zalaparta sortzen zan bien artean. Ori sendatzeagatik Juscelino Kubitschek 1956'gn. lendakaritza artu zuanean Brasil'en aspaldian amets bat zana egi biurtzea erabaki zuan

NAZIO-ARTEKO UNEA

Deabruak Moscu'tik iges egin du

GURE itzegia "agiri-agriko egiekin" bete dago. Oietatik bat ua da, lendakaria Washington'en arkitzen dan bezela eta Alta Santua Erroma'n, Deabrua erremediork gabe Moscu'n bizi dala. Kremilin'en arkitzen dirala Gaitzaren indar guztiak pensatzeraino iritzi gera eta ortikan gure konforterako ondoren bat ateratzen degu, alegia, inun galitzen bat azaltzen baldin bada badakigula nundik datorren.

Baiñan ara, Deabruak engañatu egin gaitu beste nora batera joaz eta gaiñera ugarituaz, orañi emen, gero an agertzeko, fidelen arteko mugak batera errespetatu gabe.

Aldakor dan egorera onen aurrean egokitu bearrean lengo mito zaharrei ljasasita jarraitzen degu, eztabaldatu ditezken gutxituaz, eta ideia berri asko "pentsa ez ditezken pentsamentuen" artean jarriaz. Ba, nik uste det joera au aldatu ditekela ta aldatu egin bear dala eta gure interesaren barruan dagola mifoak austeaz, "pentsa ez ditezken pentsamentuen" artean batzuek pentsatzea.

Orañi orteko itz auk Fullbright jaunarenak dira, Ipar-ameriketako Senatuaren atzerri gaitelako batzordearen buru dan demokrata senatorearenak.

Guretsat askotaz ere errezagoa da, jakiña, galiz guztiak nundik datozten jakitea, eta baita ere munduan dauden burruka guztiak "onen" eta "txarren" arteko burrukak dirala penisatzea; a, ori bai, gu beñ "onenen" artean egonaz. Eta uste det oraindik asko dala onela penisatzen duan jendes gure artean ere. Baiñan zortizarrez gauzak ez dira alñ errezak. Ona ta txarra gizon bakoitzarengan nahastuta arkitzen dira eta ez da gizarte bat zeoro txarra izango danik. Askotan esan oi izan da benetako demokrata izateko lenengo bear dan doia apaltasuna dala. Apaltasuna, baten iritzi ta joera benetakoa edo onena ez izatea geria ditekela aitortu bear dalako.

Egun auetan ere Errusian kristauren kontra egiten diran aleginen gañean asko itzezin da. Badira ori dala ta esan dutenak: "kusten dek, esaten nian, erusitar oiek deabrua baiño okeragoak dituk". Aueri arren eta arren eskatuko nleke "Temoignage Chretienne" asterokoan Jean-Ives Joff dominikoak egin duan artikuloa irakurtzeko.

Baiñan gai onetaz beste batean itzezin bearko det gaurkoz naiko ez ta.

Arregi'tar Rikardo'k



GURE KONTSEJUA DA ZOAZ Anjelita Martínez'era BITXITEGIA

Au da euskaldunen etxea. Bertan arkituko dituzu salgai merkeak eta balio ta iraupen aundiak.

Plaza de Guipúzcoa, 11

SAN SEBASTIAN

